

GREBA IBERIAN. Udako opor garaian murgilduta, Iberiako pilotuen hirugarren greba eguna iragarrita dago gaur, eta aireportuetako lan gatazka honek ez dirudi konponbidea gertu duenik, zuzendaritzak elkarrizketa mahaitik irtetea erabaki baitu

Iberia negoziazio mahaitik altxatu ostean, pilotuek greba egun gehiago iragarriko dituzte

Gaur hirugarren greba egunera deitu dute hegazkin gidariek, eta guztira 230 hegaldi etengo ditu Espainiako hegazkin konpainiak; Hegoaldean 18 hegaldi ez dira irtengo



LUIS TEJIDO / EFE

Hego Euskal Herrian gaur aurreikusitako 18 hegaldi eten egingo dira Iberiako pilotuen hirugarren greba eguna dela eta.

Iberiako greba egunak

UZTAILA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

ABUZTUA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

DATUA

Iberiako bertan behera utzitako hegaldiak

Guztira: 230 hegaldi (%22,5)

Hegoaldean: 18 hegaldi

- IB0382 Madril-Iruñea
- IB0384 Madril-Iruñea
- IB0385 Iruñea-Madril
- IB0387 Iruñea-Madril
- IB0423 Bilbo-Madril
- IB0425 Bilbo-Madril
- IB0429 Bilbo-Madril
- IB0434 Madril-Bilbo
- IB0438 Madril-Bilbo
- IB0440 Madril-Bilbo
- IB0448 Madril-Bilbo
- IB0449 Bilbo-Madril
- IB0450 Madril-Donostia
- IB0457 Donostia-Madril
- IB1454 Bartzelona-Bilbo
- IB1455 Bilbo-Bartzelona
- IB1458 Bartzelona-Bilbo
- IB1459 Bilbo-Bartzelona

Informazio gehiago jasotzeko: Servimedia
902 400 500 eta www.iberia.es

Erredakzioa | DONOSTIA

Iberiako pilotuek gaur egingen dute hirugarren greba eguna eta ez dirudi lan gatazka honen irtenbidea hurren dagoenik. Hegazkin konpainiako zuzendaritzak atzo iragarri zuen ez zuela negoziazioekin jarraituko eta elkarrizketa mahaitik irten zen. SEPLAK, bestalde, adierazi zuen greba deialdi gehiago egingo dituela.

Elkarrizketaren hausturaren inguruan ere, bi aldeek irakurketa desberdinak egin zituzten. Enrique Donaire Iberiako zuzendari nagusiaren aburuz, konpainiak aurreko asteko eskaintza bera egin zien atzo pilotuei, baina horiek ez zuten onartu eta greba deialdi gehiago egi-

teko «mehatxua» egin zion konpainiari. Horren aurrean Iberiak mahaitik altxatzea erabaki zuen.

Iberiako iturrien arabera, lau urteko lan hitzarmenak soldata %26 igotzea jasoko luke —horren barnean KPIren pareko soldata igoera eta aparteko ordain sariak leudeke—. Enrique Donairen iritziz, enpresaren errentagarritasunari eusteko «onar daitekeenaren muga» dago proposamena.

Donairek gaineratu zuen proposamena azken 20 urteotako «onena» dela eta pilotuen aldarrikapenak jasotzen dituela, betiere soldaten igoerak konpainiaren emaitzek baldintzatuta. Bere hitzetan, SEPLA ez dago ados baldintza horrekin.

HIRUGARREN GREBA

Iberiako, guztira, 230 hegaldi etengo ditu, aurreikusitakoen %22,5, eta 13.675 bidaiariri eragingo die grebak

Pilotuen ordezkariak, aldiz, prentsa oharrean esan zuten atzoko bileran zuzendaritzak azaldu ziela ez zuela elkarrizketekin jarraitzeko asmorik. Beraz, pilotuek erantzun zieten greba deialdi gehiago egingo dituztela laster. Sindikatuak ez zuen adierazpen gehiagorik egin nahi izan, «elkarrizketak gehiago ez okertzeko».

Bestalde, Espainiako Gobernuak hala ezarrita, pilotuek %77ko gutxieneko zerbitzuak bete beharko dituzte. Ondorioz, gaurko aurreikusitako 1.022 hegaldietatik 230 hegaldi atzera bota behar izan ditu konpainiak. Hego Euskal Herrian, zehazki, 18 hegaldi etenda geratuko dira gaur (ikus koadroa). Gainera, Espainian eta Europan 108 eta 102 bidaia, hurrenez hurren, ez dira aireportuetatik irtengo; Ameriketara doazenetan, aldiz, bi hegaldi baino ez dira etengo.

Behin opor garaietan murgilduta, hirugarren greba egun honek 13.675 bidaiariri eragingo die. Horietatik 10.800 pertsonak jadanik konpainiaz aldatu dute eta gainerantzakei beste

irtenbideren bat bilatu edo, bestela dirua itzuliko die hegazkin konpainiak. Atzo, CECU Espainiako kontsumitzaileen elkarteak hegazkin konpainia aldatzeko mezua igorri zien bidaiariei.

Aireportuetan lan gatazka gehiago izan daitezke

Bestalde, Espainiako aireportuetako langileak lan hitzarmen berria negoziatzan ari dira egunotan Aena erakunde publikoko zuzendaritzarekin, eta atzo UGTko ordezkariak iragarri zuten gaurko elkarrizketetan ados jarri ezean presioa egiteko neurriak hartuko dituztela.